

Euskara mailu bat da



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
EUSKALTZALEA

Neronek esan nezake, baina Macronek esan zuen. Frantses nazioa zatitzeko tresnak omen dira frantsesa estatu hizkuntza bilakatu baino lehenagotik ere exagoan baziren hizkuntza horiek. Aitor-tu orde Frantziak hizkuntza horietako hiztunak azpiratu, uniformizatu eta asimilatu egin zituela, horiei leporatu die kontrakoa egin nahi izatea. Otsoa ardi narroz jantzia, Goebbelsen eran.

Hego Euskal Herrian ere antzera ari zaizkigu CCOO, UGT eta PSOE. Oztupoak jartzeaz gain berezko hizkuntzan hitz egin nahi eta hori lortzeko neurriak hartzen dituenari, haren aurka diskurtso manipulazaila eta erasotzailea darabilte; ez da neohizkuntzaren mailara iristen, baina apropiazioaren eta supremazismoaren osagarriak ditu.

Batetik, erabat antieuskalduna da. Euskarafobia idatzi behar nuen, baina zehatzagoa iruditzen zait euskaldunon aurkakoa dela adieraztea. Euskara eskakizunak langile batzuek baztertzeko arma direla adierazi dute, nahita ahanztita hemen baztertu bakarrak bi hiz-

Nahita ahanzten dute 500dik gora lege, arau eta jarraibide dituztela gaztelania inposatzeko, eta aldi berean oldarraldi judizialik dagoenik ere ukatzen dute

kuntza ofizialak dakizkigun herritarrok garela. Gutxieneko demokratikoa beharko luke euskaraz elkar ulertzea; hizkuntz eskubideen berdintasuna lortzeko, eskaera zilegia eta neurrikoa da euskal herritarren zerbitzura aritu behar duenak, gutxienez, elkar ulertzeko adina euskara jakitea. Gainerakoa espainolaren nagusikeria linguistikoa eta euskaldunekiko bazterkeria da. Legez ezarria, gainera.

Bestalde, diskurtso klasista da, euskara gutxiengoaren hizkuntzatzat dutelako. Toleratu egiten dute, baina (beraiek erabakitzen dituzten) "behar errealetara" egokitu behar dela diote. Euskaraz bizi nahi dugunoi oztupoak jartzen dizkigute beren ezjakintasunari eta pribilegioei eusteko. Herritar xumeak behartuta daude espainola jakitera, baina VIP kastakoek, herrikideei ulertu gabe, haiengan agintzeko pribilegioa dute. Legez, inposatuta; ez gomenio, ez erregu.

Eta, azkenik, diskurtso espainolista da. Beraientzat normala da euskaldunok legez behartuta egotea gaztelania ezagutzera, Espainiako Konstituzioak horrela ezartzen duelako. Beren itsukeria *rojiguldaren* erakusle da nahita ahanztea 500dik gora lege, arau eta jarraibide, eta estatuaren errepresio tresnak dituztela gaztelania inposatzeko, eta, batera, ukatzea oldarraldi judizialik dagoenik.

Horien guztien aurrean jarrai dezagun euskaraz, eta euskaldunak ugartzen, bi nazio zapaltzaile horiek zatitu eta gurea askatu arte. ●

“

**Mundua eginez egiten
dugu geure burua.**

Joxe Azurmendi

Bada esaldi bat
pentsamendu bakoitzarentzat...

Badakizu?

Egin zaitez Jakinkide

Urtebetez doan.

Paperean edo digitalean
etxean jasoko duzu.



Jakin dabilen
pentsamendua